

Liburu elektronikoak liburutegietara iritsi dira

Berritasuna 33 irakurgailu daude maileguan; 11 udal liburutegitan banatu dituzte.

NEREA LIZARRALDE

Liburu elektronikoen irakurgailuak errealitate bihurtu dira hiriko udal liburutegien sarean. Dagoeneko maileguan hartu daitezke. Guztira 33 irakurgailu banatu dira, Gehienak Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian daude (13 irakurgailu), baina beste auzoetara ere iritsi dira: Casares-Tomasene (3), Ernest Lluch (3), Okendo (3), Intxaurren Berri (2), Egia (2), Loiola (2), Lugaritz (2), Haur Liburutegiko Dokumentazio gunea (1), Larratxo (1) eta Larrotxene (1).

Irakurgailu bakoitzak memoria txartela bat darama. 727 lan daude bakoitzean. Egile eskubiderik gabeko idazlanak dira: Edgar Allan Poe, Jane Austen, Lewis Carroll edo Dostoievski bezalako egileenak, besteren artean. Horregatik, lan gehienak obra klasikoak izango dira. Berritasunak irakurgailuetan ere eskaintzea izango da, hain zuzen, Donostia Kulturaren erronka: "AEBetan plataformak daude liburuen edukiak deskargatzeko. Hemen argitaletxeek ez digute oraindik aukera hori eman. Espero dut euskal argitaletxeekin batera obra berriak lortzea, adierazi du Arantxa Urkiak, Udal Liburutegi Zerbitzuaren arduradunak. 594, gaztelaniaz, 69, euskaraz eta 50 ingelesez. Liburutegi Zerbitzuak idazlanen zerrenda luzatu ahal izango du, beti ere legeak onartzen dituen deskargen bidez.

Euskarazko obrak esaterako, orain maileguan dauden lanak Auspoa izeneko bildumakoak dira. Euskararen Patronatuak digitalizatu zituen.

15.000 euroko inbertsioa egin du Donostia Kulturak liburu elektronikoen irakurgailuetan. Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du, teknologia berrietan inbertsioa egiteko bideratzen dutena, hain zuzen. Merkatuan 70etik gora irakurgailu daude, eta Liburutegi Zerbitzuak horietatik hiru hautatu ditu: Iliad, Cybook eta Papyre.

Erabiltzaileek 21 egunez maileguan hartzeko aukera izango dute, euskarri berria ondo ezagutu ahal izateko. Irakurgailua eskuratzerakoan paper bat sinatu beharko dute, liburu elektronikoan kalteen arduradun egiteko. Itzultzerakoan galdera batzuk erantzuteko eskatuko diete erabiltzaileei, zerbitzua hobetu ahal izateko.